

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3724

1212/2024 EBAZPENA, uztailaren 18koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez betearazten den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren administrazio kontseiluaren 2024ko uztailaren 11ko Erabakia, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 22ko 836/2024 Ebazpena zuzenduz. Ebazpen horren bidez, argitara ematen dira onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta behin betiko esleitzen dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Familia Medikuntzako Fakultatibo Espezialista (LMAT) kategoriako / lanpostu funtzionaleko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloan eskainitako destinoak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 26ko 1671/2019 Ebazpenaren bidez, lekualdatze-lehiaketa deialdia egin zen Fakultatibo Espezialista Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Familia Medikuntzako Fakultatibo Espezialista Medikoa – LMAT kategoriarako. Urtarrilaren 13ko 7. EHAA n argitaratu zen ebazpen hori, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren eranskinean jasotako oinarrien arabera.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren apirilaren 27ko 298/2023 Ebazpenaren bidez (maiatzaren 16ko EHAA, 91. zk.; aldatua izan zena maiatzaren 25eko 656/2023 Ebazpenaren bidez –ekainaren 7ko EHAA, 107. zk.– eta abuztuaren 9ko 1085/2023 Ebazpenaren –irailaren 7ko EHAA, 171. zk.– bidez) argitara eman zen lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloko destinoen eskaintza Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Familia Medikuntzako Fakultatibo Espezialista Medikoa – LMAT kategorian.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren otsailaren 19ko 94/2024 Ebazpenaren bidez, argitara eman ziren onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta behin-behinean esleitu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Familia Medikuntzako Fakultatibo Espezialista Medikoa - LMAT kategoriako lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloan eskainitako destinoak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 22ko 836/2024 Ebazpenaren bidez (maiatzaren 20ko EHAA, 97. zk.), argitara eman ziren onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta behin betiko esleitu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Familia Medikuntzako Fakultatibo Espezialista Medikoa - LMAT kategoriako 2023ko martxoko zikloan eskainitako destinoak.

Orte García andrea ez zen parte-hartzaile gisa ageri 2023ko martxoko esleipen-zikloan, ez baitzen agertzen 2023ko martxoko zikloko onartutako pertsonen zerrendan, ezta 2023ko martxoko zikloko baztertutakoen zerrendan ere.

2024ko uztailaren 31, asteazkena

Orte García andreak gora jotzeko errekurtoa jarri zuen apirilaren 22ko 836/2024 Ebazpenaren aurka, bere iritziz, 2023ko martxoko esleipen-zikloan parte hartzeko eskaera lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorretik kanpo uztea ez zettorrelako bat Zuzenbidearekin.

Aurkeztutako errekurtoa behar bezala aztertu ondoren, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluak baietsi egin du, 2024ko uztailaren 11ko Erabakiaren bidez. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluak erabaki du Orte García andrea lekualdatze-lehiaketa irekiko 2023ko martxoko zikloko parte-hartzaile gisa onartzea. Beraz, zuzendu egin behar da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 22ko 836/2024 Ebazpena, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrari buruzkoa, eta behin betiko destinoa esleitu behar zaio, Zuzenbidean dagozkion gainerako ondorioekin.

Azaldutako guztiaren ondorioz, eta langileen arloan indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan eskumenez baliatuz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpena ematea, betearazteko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren uztailaren 11ko Erabakia, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 22ko 836/2024 Ebazpena zuzenduz. Ebazpen horren bidez argitara ematen dira onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta behin betiko esleitzen dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Familia Medikuntzako Fakultatibo Espezialista Medikoa - LMAT kategoriako lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloan eskainitako destinoak. Zehazki, zuzenketa hau egingo da:

Aldatu egingo da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 22ko 836/2024 Ebazpenaren I. eranskina, zeinak Fakultatibo Mediko eta Teknikoak lanbide-taldeko Familia Medikuntzako Fakultatibo Espezialista Medikoa - LMAT kategoriako destinoen behin betiko esleipena jasotzen baituen. Hala, Ana Isabel Orte García andrea sartuko da 2023ko martxoko esleipen-zikloan onartutako pertsonen zerrendan.

Apirilaren 22ko 836/2024 Ebazpenaren III. eranskina aldatzea, destinoen behin betiko esleipena jasotzen duena, eta gehitzea Ana Isabel Orte García andrea behin betiko esleipendun gisa Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIan dagoen destino honetan:

1	Ezker.– Enkart.– Gurutzetako ESIa	Lehen Mailako Arreta-Lehen Mailako Arreta / Zalla-Zallako EAG / Etengabeko Arreta Guneak - Etengabeko Arreta Guneak - Etengabeko Arreta Guneak / 7 ordu baino gehiagoko etengabeko arretako lanaldia - EAG - Gauak barne / 2HE iraungita
---	-----------------------------------	--

Bigarrena.– Agintzea ebazpen hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren lekualdatze lehiaketa ireki eta iraunkorraren web-orrian eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin.

Hirugarrena.– Gainerako jardueretarako, mantentzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 22ko 836/2024 Ebazpenean ezarritakoa.

Laugarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997

2024ko uztailearen 31, asteazkena

Dekretuak ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteke epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailearen 18a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.